

Transexualitateari buruzko legeria

Nafarroa, Euskal Autonomia Erkidegoa, Espainia, Europa eta nazioarteako legeetan jasotako transexualitate egoeran dauden pertsonen eskubideak kontsulta itzazu www.naizen.eus webgunean.

Nazioarte

Yogyakartako printzipioak

Yogyakartako printzipioak, sexu orientazioari eta genero identitateari dagokionez giza eskubideen nazioarteko legedia aplikatzeari buruzkoak, 2007ko martxoaren 26an aurkeztuak, Nazioarteko Juristen Batzordeak eta Giza Eskubideen Nazioarteko Zerbitzuak proposatuta, NBEren Giza Eskubideen Kontseiluaren Laugarren Saioaren baitan, Genevan.

3. Printzipioa. Nortasun juridikoa aitortua izateko eskubidea

Gizaki orok du eskubidea, alde guztietan, nortasun juridikoa aitortua izateko. Sexu orientazio edo genero identitateen aniztasun osoa kontuan izanda, pertsona guztiek gaitasun juridikoa izango dute bizitzako alderdi guztietan. Pertsona bakoitzak bere buruarentzat definitzen duen sexu-orientazioa edo genero-identitatea funtsezkoa da bere nortasunerako eta bere autodeterminazioaren, duintasunaren eta askatasunaren funtsezko alderdietako bat da, bere. Pertsona bat bera ere ez da mediku prozeduretara behartuta egongo, sexu berresleipenerako kirurgia, esterilizazioa edo hormona terapia barne, genero identitatearen legezko aintzatespenerako baldintza gisa.

16. printzipioa. Hezkuntzarako eskubidea

Pertsona orok du hezkuntzarako eskubidea, sexu orientazioan eta genero identitatean oinarritutako inolako bereizkeriarik gabe, eta haiekiko errespetuz.

Estatuen zereginak:

- Hezkuntzarako sarbidea eta ikasleen, langileen eta irakasleen arteko berdintasunezko tratua bermatzeko beharrezkoak diren lege, administrazio eta bestelako neurriak hartuko dituzte hezkuntza sistemaren barruan, sexu orientazioko edo genero identitateko bereizkeriarik egin gabe;

- Hezkuntza sistema ikasle bakoitzaren nortasuna, trebetasunak eta gaitasun mentala eta fisikoa garatzera bideratuta egongo dela bermatuko dute, ahal den neurrian; eta sexu orientazio eta genero identitate guztietako ikasleen premiei erantzungo die;
- Hezkuntzak giza eskubide eta oinarritzko askatasunekiko errespetua irakatsiko duela bermatuko dute, bai eta ama, aita eta familia bakoitzaren senideekikoa ere, eta haien kultura nortasuna, hizkuntza eta balioak errespetatzera bideratuta egongo dela; sexuen arteko kideen elkar ulermeneko, bakeko, tolerantziako eta berdintasuneko espirituz, beti ere genero-orientazio eta genero identitate desberdinak kontuan hartuta eta errespetatuz;
- Metodoek, curriculumek eta hezkuntza baliabideek, besteak beste, sexu orientazioen eta genero identitateen aniztasuna hobeto ulertzeko eta errespetatzeko balioko dutela ziurtatuko dute, beti ere ikasleen eta haien amen, aiten eta senideen premia bereziak kontuan izanik;
- Bermatuko dute legeek eta politikek babes egokia ematen dietela genero orientazio eta genero identitate desberdinetako ikasleei, langileei eta irakasleei gizarte bazterkeria eta indarkeria mota guztien aurka; eskola eremuko jazarpena eta xaxatzea ere barne hartuta;
- Bazterkeria edo indarkeria jasaten duten ikasleak ez direla bereizten edo baztertzen ziurtatuko dute, babestearren; baita ere, guztiek parte hartuta, haien interes gorenak identifikatzen eta errespetatzen direla;
- Beharrezkoak diren lege, administrazio eta beste mota bateko neurriak hartuko dituzte bermatzeko eskola establezimenduetan diziiplina giza duintasunarekin bateragarria izango dela, sexu orientazioan, ikasleen genero identitatean edo haien adierazpenean oinarritutako bazterkeriarik edo zigorrik gabe;
- Pertsona guztiek beren bizitza zikloko etapa guztietan ikasteko aukera eta baliabideetara iristeko aukera izango dutela zainduko dute, sexu orientazioko edo genero identitateko bereizkeriarik gabe; barne hartuta hezkuntza sisteman jada diskriminazio mota horiek jasan dituzten pertsona helduak ere.

18. printzipioa. Medikuen abusuen aurkako babesa

Inor ez da behartuta egongo tratamendu, prozedura edo azterketa mediko edo psikologikoak egitera, ezta establezimendu mediko batean konfinatuta egotera ere, haren orientazio sexuala edo genero identitatea dela-eta. Kontrakoa adierazten duen edozein sailkapen gorabehera,

pertsona baten orientazio sexuala eta genero identitatea ez dira, berez, osasunaren trastornoak eta ez dute behar ez tratamendu medikurik, ez ezabatuak izatea.

Estatuen zereginak:

- Beharrezkoak diren lege, administrazio eta beste mota bateko neurriak hartuko dituzte, sexu orientazioan edo genero identitatean oinarritutako praktika mediko kaltegarrien aurkako babes osoa bermatzeko; baita ere praktika horiek generoari dagokionez arau gisa hartzen diren jokabide edo itxura fisikoen estereotipoen ondoriozkoak direnean, kulturatik edo beste iturri batetik sortuak.
- Beharrezko diren lege, administrazio eta beste mota bateko neurriak hartuko dituzte ziurtatzeko neska edo mutil baten gorputza ez dela modu konponezinean aldatua prozedura mediko baten bidez; prozedura horren xede izanik, haren adina eta heldutasuna kontuan hartuta, haren onspen osoa, askea eta informatua izan gabe, genero identitate bat ezartzea. Kontuan izanik neska-mutilei dagozkien ekintza haien kontsiderazio nagusia, izango dela haien interes handiena babestea.
- Neska-mutilak babesteko mekanismoak ezarriko dituzte; haurrek abusu medikoak jasateko edo haiei men egiteko arriskua izan ez dezaten.
- Genero orientazio eta identitate desberdinetako pertsonen babesa bermatuko dute GIB/HIESerako edo beste gaixotasun batzuetarako txertoekin, tratamenduekin edo mikrobizidekin zerikusia duten etikarik gabeko prozedura edo ikerketa medikoen aurka.
- Abusu horiek sustatu, erraztu edo beste nolabait eragiteko aukera ematen duten osasunerako finantzazio xedapen edo programa guztiak berrikusi eta zuzenduko dituzte, garapenerako lankidetzakoak barne.
- Bermatuko dute medikuntza edo psikologia arloko inolako tratamenduk ez dituela, esplizituki edo inplizituki, sexu orientazioa edo genero identitatea tratatuak, sendatuak edo ezabatuak izan behar duten osasun arazotzat hartzen.

Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmena

8. artikulua. Bizitza pribatua eta familiarra errespetatuak izateko eskubidea

1. Pertsona orok du haren bizitza pribatua eta familiarra, bizilekua eta gutuneria errespetatuak izateko eskubidea.
2. Eskubide hori baliatzean, ezin izango da agintaritza publikoaren esku hartzerik izan, Legeak aurreikusitako kasuetan izan ezik eta honelakoetarako bakarrik: gizarte demokratiko batean segurtasun nazionala, segurtasun publikoa, herrialdeko ongizate ekonomikoa eta arau-hauste penalen ordena eta prebentzioa, osasuna edo morala babestea, edo hirugarrenen eskubideak eta askatasunak babestea.

Giza Eskubideen Adierazpena Unibertsala

12. artikulua. Ez dago arrazoirik gabe beste inoren bizitza pribatuan, familian, etxean edo postan eskusartzerik, ezta inoren ohore edo izen onari eraso egiterik ere. Normahik du eskusartze edo eraso horien aurka legezko babesa izateko eskubidea

Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena

3. artikulua

1. Gizarte ongizateko erakunde publiko edo pribatuek, auzitegiek, administrazio agintariak edo legegintza organoek hurrei buruz hartzen dituzten neurri guztietan haurren interesak lehentasun osoa izango du.

8. artikulua

1. Estatuak konpromisoa hartzen dute hurrek beren nortasuna zaintzeko duten eskubidea errespetatzeko, baita nazionalitatea, izena eta familia harremanak ere, legez kontrako esku sartzerik gabe.

16. artikulua

1. Hurrek ez dute nozituko nahierarako edo legearen aurkako esku-sartzerik euren bizitza pribatuan, familian, egoitzan edo korrespondentzian, ezta euren ohorearen eta izen onaren aurkako erasorik ere, halakoak legearen aurkakoak direnean.

2. Hurrek eskubidea dute, legearen babesa izateko halako esku-sartze edo erasoen aurka.

29. artikulua

1. Estatu alderdiek adostu dute haurren hezkuntzak xede hauek izan behar dituela:

a) Garatzea haurren nortasuna, trebetasunak eta gaitasun mentala eta fisikoa, euren ahalmenen arabera, ahalik eta gehien;

d) Haurrak prestatzea, gizarte aske batean bizitza ganorazkoa izateko, ulermena, bakea, tolerantzia, sexu-berdintasuna eta lagun arteko giroa nagusi direla, herri, talde etniko, talde nazional nahiz erlijioso eta indigena-jatorriko pertsona guztien artean;

Giza Eskubideen Europako Auzitegia

2007ko irailaren 11ko epaia (GEEA\2007\56):

"65) Auzitegiak hainbat kasu aztertu ditu transexualek gaur egungo baldintzetan dituzten arazoekin lotuta, eta ezarri eta onartu egin du Estatuko neurrien emendatzea eta garapena haien onarpena eta babesa bermatzeko, Hitzarmeneko 8. artikulua arabera."

Europako Parlamentuaren ebazpena, 2012ko abenduaren 12koa, Europar Batasuneko oinarritzko eskubideen egoerari buruzkoa (2010-2011) [onartutako testua, PT-7A (2012) 0500]

Gomendio orokorra (98 zk.): " Deitoratzen du estatu kide batzuetan, oraindik ere, transexualak gaixo mentalak direla kontsideratzen dela; estatu kideei eskatzen die generoaren aitortza juridikoko prozedurak sartzeko edo berrikusteko, Argentinako ereduaren arabera, generoaren aitortza juridikorako baldintzak errevisa ditzatela (derrigorrezko esterilizazioa barne); Batzordeari eta Munduko Osasun Erakundeari eskatzen die genero identitateko trastornoak buruko eta jokabidezko gaixotasunen zerrendatik ken ditzatela eta berma ditzatela trastorno horiek trastorno ez-patologiko gisa sailkatuko direla Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapenaren hamaikagarren bertsioaren negoziazioetan (CIE-11)"

Europako Askatasun, Justizia eta Barne Gaietarako Batzordearen 2014ko urtarrilaren 8ko txostena, Ebren ibilbide orriari buruzkoa homofobiaren aurka eta sexu

oraientazioaren eta genero identitatearen ondoriozko bazterkeriaren aurka [2013 / 2183 (INI)]

E. Bazterkeriarik ez osasun arretan

(ii) Batzordeak eta Munduko Osasun Erakundeak lanean jarraitu behar dute genero identitateko trastornoak buruko eta jokabidezko gaixotasunen zerrendatik kentzeko eta bermatzeko trastorno horiek trastorno ez-patologiko gisa sailkatuko direla Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapenaren hamaikagarren bertsioaren negoziazioetan (CIE-11);

(v) Estatu kideek kontuan izan behar dituzte LGBTI pertsonak osasuneko plan eta politika nazionaletan eta zaindu egin behar dute osasun alorreko prestakuntza programek, osasun politikek eta inkestek LGBTI pertsonen eragiten dizkien osasun auziak izango dituztela kontuan modu espezifikoan.

(vi) Estatu kideek genero errekonozimenduko prozedura juridikoak ezarri edo berrikusi behar dituzte, trans pertsonen duintasunera eta osotasun fisikora duten eskubidea erabat errespetatzeko xedez.

Nafarroa, Euskal Autonomia Erkidegoa, Espainia, Europa eta nazioarteako legeetan jasotako transexualitate egoeran dauden pertsonen eskubideak kontsulta itzazu www.naizen.eus webgunean.